- Hiriari buruzko berriei, aldizkari bat prestatu.
- Udaletxean alkatea edo arloren bateko ardura-dunak elkarriketatzeko eta auzoarentzat interesgarriak diren gaien gaineko kontsulta egiteko bidea eratu.
- Hauteskunde kanpaina eta udal hauteskundeak antolatu, eta eskolako taldeek nork bere egitaraua eta hobekuntza planak aurkeztu.
- Hiriaren alderdi geografikoak, historikoak, urbanistikoak edo ingurumenari dagozkionak lantzeko ibilbideak antolatu hirian zehar.
- Hiriaren ingurumena hobetzeko jardunaldi monografikoak antolatu (zuhaitz landaketa, oinezkoentzako guneak, bizikletentzako bideak, etab.)



*Begoñako Udaltegia, non auzoko gizarte maila guztientzat kultur ekintzak antolatzen diren.*

### 4. URRATSA. Emaitzak jakinarazi

- Proposatutako neurriak, horiek gauzatzeko planak eta lortutako emaitzak komunitate osoari jakinarazi.
- Udal agintariei bizitzeko hiri egokiaren aldeko eta garapen jasangarriari buruzko sentikortze-programak gara ditzatela eskatu.
- Harremanak sendotu eta tokiko kultura berreskuratzeko erakusketak, jardunaldi irekiak, irratia-emanaldiak eta abar antolatu.
- Auzoko elkarte eta taldeekiko lankidetzak harremanak sustatu (bisitak, elkarriketak, kanpainak, etab.).



*Bilborock, kontzertu aretoa.*




*San Francisco Ikastetxe Publikoa.*



*Metroko sarrera bat.*





# Gure herria

## Jardueraren garapena

1. Hasteko, hurrek muralean zer ikusten duten azalduko dute.

Muralak bi zati ditu.

Irakasleak erabakiko du zer ordenatan aztertzea komeni den; elkarren osagarri dira biak; beraz, bata bestearen ondotik aztertuz gero, are ikuspegi zabalagoa hartuko da.

Muralak hirigune handien hainbat alderdi islatzen du, zerbitzuei, lanbideei eta beste gai batzuei buruzko informazioa emateaz gain.

2. Bertan ageri diren gauzen zerrenda egitea proposatuko diegu (irakasleak arbelean idatzi edo marraztu ahal ditu).

3. Ondoren, zerrenda hori eurak bizi diren hiri edo herrian dau-den gauzeekin erkatzea eskatu eta galdera orokorrak edo muralari buruzkoak egingo dizkiegu, esaterako:



- Gauza horiek guztiak daude zuen hiri edo herrian, ala falta da baten bat? Eta, badago ezer, zuen herri edo hirian dagoena eta muralean ageri ez dena?
- Joan daitezke bakarrik eskolara hiri horretako haurrak?, eta jolastera?, eta erosketak egitera?
- Pozik bizi ote dira biztanle gazteenak?, zergatik?
- Zer egin liteke muraleko hiria politagoa eta guztien gustukoa izateko?
- Amaitzeko, hiri handietan izaten diren arazoetako batzuk aipatu-

## HELBURUAK

- Pertsonen bizimoduak begiratzea.
- Herri edo hiriko ingurumen arazoak eta horiek sortzen dituzten giza jarrerak ezagutzea.

## MATERIALA

- ◆ Gure herria unitate didaktikoaren murala.

ko ditugu, adibidez, hondakinak eta zarata:

- Muraleko hiriko zer leku daude zikin? Zer egin liteke garbitzeko?
- Zer leku dira zaratatsuak?, eta lasaiak?, zergatik? Zer egin liteke hirian horrenbesteko zaratarik ez egoteko?



Iturria:

MAIZTEGI IRIONDO, R. **Gure herria** // **Nuestro pueblo**. Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Haur Hezkuntza. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Gasteiz, 1998.





# Zazpi berdintasunak eta zazpi ezberdintasunak

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- ARTE HEZKUNTZA

## HELBURUA

- Herriak eta bizimoduak urteen poderioz nola aldatu diren ikustea.

## MATERIALA

- ◆ Herri baten antzinako eta gaurko argazkiak, baita azpiegitura desberdinak dituzten hirienak ere.

## Garapena

Ikasleak bikoteka antolatu eta bina argazki emango dizkiegu, horien arteko ezberdintasunak ikusi eta behean ageri diren galderei erantzun diezaieten.



TOLOSAKO UDALA

### 7 berdintasunak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### 7 ezberdintasunak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Zeinetan biziko lirateke lasaiago haurrak?
- Non dago ikasteko aukera gehiago?
- Non kontsumitzen dira elikagai, ur eta energia gehiago?
- Non ote dago mediku eta ospitale gehiago?
- Zeinetan ote dago jolasteko aukera gehiago?



# Joan naiteke bakarrik eskolara?

## HELBURUA

- Haurrek hirian jasaten dituzten irisgarritasun arazoez jabearaztea.

## Jardueraren garapena



Eskolara nola etortzen diren galdetuko diegu ikasleei. Ematen diziguten erantzunen arabera, hiru talde egingo ditugu: euren kasa etortzen direnak, garraio publikoa erabiliz etortzen direnak eta helduren batekin etortzen direnak.

Talde bakoitzari dagokion inkesta emango diogu, etxera eraman eta familiaren laguntzaz bete dezaten.

Biharamunean, inkestak bateratu eta egoera bakoitzaren onurak eta eragozpenak aipatuko ditugu; bakoitzak eskolara nola nahiago duen etorri ere ikusiko dugu. Biltzen ditugun ondorioekin, artikulua labur bat prestatuko dugu gurasoei, ikastetxeari eta agintariei banatzeko.

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- HIZKUNTZA.

## Inkesta hau eskolara bakarrik etortzen direnek beteko dute



Zenbat denbora ematen duzu etxetik eskolaraino?

- ☐ 5 minutu
 ☐ 5-10 minutu
 ☐ 10-15 minutu
 ☐ 15-20 minutu
 ☐ 20 minututik gora

Zenbat kale zeharkatu behar duzu eskolara iritsi aurretik?

.....

Kale horietako zenbatetan dago semaforoa?

.....

...eta oinezkoen pasagunea?

.....

Nolakoa da zirkulazioa kale horietan?

- ☐ Auto asko dabilta
 ☐ Ez dabil auto askorik
 ☐ Auto gutxi dabil

Egoten da udaltzainik eskolako sarreran? .....

Eta badago eskola bertan dagoela edo abiadura murriztu egin behar dela adierazteko seinalerik? .....



Badago leku arriskutsuren bat —zirkulazio ugaria, semafororik eza, husturiko lekuak, orubeak...— eskolako bidean?

Zein?

Nahiago zenuke eskolaraino helduren batek laguntzea ala atsegin duzu zeure kasa etortzea?

### Inkesta hau eskolako autobusean edo auto pribatuan etortzen direnek beteko dute



Zergatik uste duzu aukeratu duela zure familiak autobusa edo autoa?

- ☐ Eskola etxetik urrun dagoelako
- ☐ Bidea arriskutsua delako
- ☐ Bizkorragoa eta erosoagoa delako

Atsegin duzu garraioa erabiltzea ala nahiago zenuke oinez etorri?

Zergatik?

### Inkesta hau eskolara oinez baina helduren batekin etortzen direnek beteko dute



Zergatik uste duzu eskolara heldu batekin etorri behar duzula?

- ☐ Oso bide luzea delako
- ☐ Bidea arriskutsua delako
- ☐ Eskola lantokiko bidean dagoelako.

Nahiago zenuke bakarrik etorri? ..... Zergatik?



# Etxetik eskolarako bidea

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

## MATERIALA

- ◆ Herriko mapa bat, eskalaren arabera egindakoa, lau ikasleko talde bakoitzeko.

## HELBURUA

- Eskalak zer diren ulertzea eta mapak erabiltzen ohitzea.

## Garapena



Hasteko —eskala kontzeptua ulertzeko jolas gisa— 1:2 eskalan egingo dugu tximeletaren mapa (ikus marrazkia); ondoren ikasleek, launka, eskolara etortzeko erabiltzen dituzten bideak marraztuko dituzte herriko mapa batean, eta benetako distantziak kalkulatu dituzte eskalan (egokiena 1:1.000 edo 1:2.000 eskalan arabera mapak erabiltzea litzateke; udaletxean eskatu ahal dira).

## Eskalak ulertu

Marratzu tximeleta laukian. Lauki hori 1:2 eskalaren arabera mapak bat da.

## Gure herriko maparen azterketa

Kokatu eskola eta zeuen etxea herriko planoan. Gero, marraztu kolore banaz etxetik eskolaraino egiten duzun bidea; neurtu eta, eskala erabiliz, kalkulatu distantzia.







# Argazki Rallya

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZA.

## HELBURUA

- Auzoaren alderdi positiboak eta negatiboak baloratzea eta horien gaineko erakusketa bat prestatzea.

## MATERIALAK

- ◆ Argazki kamera bat lau ikasleko talde bakoitzeko.
- ◆ Muralak egiteko kartulinak.
- ◆ Margoak eta errotuladoreak.

## Jardueraren garapena

Herri edo auzoa behar beste zatitan banatuko dugu, ikasleak lau-ko taldeetan antolaturik. Talde bakoitzak ibilbide bat prestatu beharko du dagokion zatian; horretarako, bertan ageri diren elementuak identifikatu eta argazkiak egingo ditu. Taldeak eta zereginak banatu baino lehen, komeni da hiriari buruzko honako alderdi hauetaz mintzatzea: materialen irteerak eta sarrerak, aisialdia pasatzeko aukerak, bizi-kalitatea, komunikabideak, giza harremanak, inguru fisikoa, ingurumen inpaktuak, azpiegiturak, garraiobideak, pertzepzio estetikoak eta zentzumenezkoak (arteak, kultura, koloreak, usainak, soinuak...).

Geroago, talde bakoitzak mural batean itsatsiko ditu egin dituen argazkiak; horien bidez, alde batetik, hiriari buruz hartu duten inpresioa edo iritzia adieraziko dute eta, bestetik, beraren alderdi negatiboak salatuko dituzte.


Azkenik, erakusketa bat antolatuko dugu mural guztiekin (ikas-tetxeko sarreran ipini ahal dugu).

## Gustukoa duguna



## Salatu nahi duguna





# Leihotik dakusagun paisaia

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.

## HELBURUAK

- Hiri-paisaia eratzen duten osagai mota ugariez konturatzea, aztertzen den aldearen arabera mota bakoitzaren nagusitasunari erreparatuz.
- Behatutako paisaiak baloratzeko eta preziatueneen ezaugarriak aztertzea.

## MATERIALA

- ◆ Institutuko leihotatik ikusten diren hiri-paisaien argazkiak (gutxienez hiru paisaia ezberdin).

## Jardueraren garapena

Lehenbizi, aztertu behar diren paisaiak aurkeztuko dizkiogu taldeari.



Bigarrenik, paisaiak deskribatzeko, baloratzeko eta zer gustatzen zaien gehien eta zer gutxien adierazteko eskatuko diegu.

Ondoren, bateratze-lana egin eta behatutako paisaia guztien zerrenda ordenatuko dugu: lehenengoa balioetsiena izango da eta, horrela, hurrenez hurren, taldeari gutxien gustatu zaionera arte.

Paisaia bakoitzaren osagai motak aztertuko ditugu:

- Zer nagusitzen da: eraikinguneak ala berdeguneak? Badago zuhaitzik edo landarerik?
- Zer-nolako eraikinak ikusten dira? (berriak, zaharrak, altuak, baxuak, etab.).
- Zer azpiegitura ikusten dira? (errepideak, trenbideak, etab.).
- Badago fabrika edo tailerrik?
- Garbi daude kaleak?
- Zer ikusten da paisaiaren atzealdean?

Amaitzeko, hiri-paisaia batek, gure gogokoa izateko, izan behar dituen ezaugarrien gainean eztabaidatu-ko dugu guztion artean.





# Hiri jasangarria da gurea?

*Sarritan galdetu diogu geure buruari gure hiria bizitzeko leku aproposa den. Hirietako bizi-kalitatea komunikabideetan maiz aipatzen den gaietakoa dugu, baina, nola jakin dezakegu gure hiria leku osasungarria den?*

*Jarduera honetan hiri bateko bizi-kalitateak zer adierazten duen eta zuen inguruko zer alderdi hobetu ahal diren eztabaidatu eta ados jartzea proposatzen dizuegu.*

**INGURUMENARI BURUZKO** adierazleak neurtzen errazak diren ingurumen arazoekin zerikusia duten alderdiak dira; horiek denboran zehar izaten duten aldaketak gure inguruaren kalitatearen bilakaeraren noranzkoa zehaztea ahalbidetzen digu. Ingurumen adierazle horiei esker, hiri bateko arazoei antzeman, egoera hobetzeko ekintzak proposatu eta ekintza horien eraginkortasuna ebaluatu egin ahal da.

Gasteizko Udala 1995etik dabil garapen jasangarriaren helburuetatik gero eta hurbilago dagoen hiri bat eraikitze ahaleginetan. Hona hemen hiri horren ingurumenaren egoera neurtzeko erabiltzen diren adierazleetako batzuk:

1. Urtean, *halamoduzko* kalitateko edota kalitate *txarreko* airea izaten den egunen kopurua.
2. Egunez, Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatutakoak baino zarata maila altuagoak jasan behar dituen biztanleria.
3. Hiriko autobusak erabiltzen dituzten bidaztien kopurua.
4. Hiriaren erdialdera doazen kale nagusietan egunero zirkulatzen duten ibilgailuen kopurua.
5. Etxeetako ur kontsumoa, biztanleko eta eguneko.
6. Zadorra ibaiak hiritik jasotzen duen karga organikoaren portzentajea.
7. Etxeetako gas eta elektrizitate kontsumoa, biztanleko eta urteko.
8. Ingurumen kudeaketaren ziurtagiria lortu duten hiriko enpresen kopurua.
9. Etxeetan biztanleko eta eguneko sortutako hondakinen pisua.
10. Birziklatutako eta sortutako hondakinen kopuruak ehunekotan.
11. Etxebizitzak zaharberritzeko emandako lizentzia kopurua.
12. Oinarrizko zerbitzuetara oinez joan daitezkeen biztanleen ehunekoa.

13. Udalerrian dauden hegazti urtar habigileen espezie kopurua.
14. Narriaturik zeuden eta lehengoratu diren guneen eremua.
15. Nekazaritzako ingurumen programaren baten barruan sartu diren lurren eremua.
16. Ingurumen informazioa eskatzeko kontsulta kopurua.
17. Udalak antolatutako ingurumen hezkuntzako programetan parte hartzen duten eskola adineko biztanleen ehunekoa.



- Zertan dautza zuen hiriko ingurumen arazoak? Zer adierazleri deritzazue arazo horiek ebaluatze egoiena? Aukeratu interesgarrienak.
- Hartzen da aintzat gazteen iritzia hiriaren plangintza taxutzean?
- Zer eskakizun bete beharko lituzke zuen hiriak bizi-kalitate onekoa dela esateko?
- Ezer egiten ari da zuen udala jasangarritasunaren alde?
- Badago zuen inguruan hiriko bizi-baldintzak hobetzearen alde diharduen elkarterik?
- Zertan lagundu ahal du zuen institutuak ingurunea hobetzeko?

Horren ostean, komenigarria litzateke ondorioztapenak udal arduradunei helaraztea, bai eta zuen institutukoei hiriaren jasangarritasunaren alde lan egiteko zuen asmoa jakinaraztea ere.

## Gehiago jakiteko

- ◆ HEWIT, N. *Guía Europea para la Planificación de las Agendas 21 Locales*. Eusko Jaurlaritz. Bilbo, 1998.
- ◆ **Agenda 21eko aldizkaria**. *Boletín Agenda 21*. (urteroko argitalpena) Gasteizko Udala. Gasteiz, 1998, 1999, 2000, 2001.

## Herritarrek kexak adierazteko leihatila

Honakoan, udaletxeetako postontzietan aurkitu diren baina udal arlo egokira bidali ez diren gutun zati batzuk aurkezten dizkizuegu. Zuek, orain, horiek irakurri, arazoa aztertu eta bakoitza udaleko zer arlori dagokion erabaki behar duzue. Horretan laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen web guneen berri ematen dizuegu: sar zaitezte, kexak zer sail edo arlotara bidali behar diren jakiteko.

- |  |  |
|--|--|
| ■ <a href="http://www.alegia.net">www.alegia.net</a>                         | ■ <a href="http://www.bilbao.net">www.bilbao.net</a>                   |
| ■ <a href="http://www.arrasate-mondragon.net">www.arrasate-mondragon.net</a> | ■ <a href="http://www.donostia.org">www.donostia.org</a>               |
| ■ <a href="http://www.ayala-aiara.com">www.ayala-aiara.com</a>               | ■ <a href="http://www.getxo.net">www.getxo.net</a>                     |
| ■ <a href="http://www.balmaseda.net">www.balmaseda.net</a>                   | ■ <a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>                       |
| ■ <a href="http://www.barakaldo.org">www.barakaldo.org</a>                   | ■ <a href="http://www.mendaro.net">www.mendaro.net</a>                 |
| ■ <a href="http://www.beasain.net">www.beasain.net</a>                       | ■ <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a> |

**Elsa Goitia.**  
48 urteko parapelegikoa.

*Ezin eroso mugitu alde zaharreko kaleetan.*

"...itzelezko kontraesan maila sortu dugu: antzoki, auditorio eta museo ikusgarriak eraikitzen dituzte eta sarbidea ezin hobea dute; urritasunen bat dugunok geuretzako komuna eta guzti daukagu, diseinu zoragarrikoa eta ispilu handi-handiak dituen. Eta, zertarako nahi dugu hori guztia, eraikin eder horien sarrerara iristeko, umore eta borondate onak gorabehera, etxean geratzeko gogo sortzen duten oztopo saihesgaitz ugari aurre egin behar badiegu? Horregatik, nahiago izaten dugu etxean geratu, hiriko espaloi estuetan bazterkeria gordina jasan baino".

**Txomin Conde.**  
52 urte. Txandaka dabil lanean.

*Hiriaren inguraldeko auzo batean bizi da.*

"... bai, bai, jakina, jaso egin ditugu zaborren birziklapenari, koloretako biltontziei eta parafernalia osoari buruzko informazio foiletoak. Baina, zer diozue ordutegiez? Uste duzue nire auzoko jendeak badaukala zarama poltsak eguneko edozein ordutan ateratzeko dakartzan ondorio kirasduen kontzientziarik? Kopetaraino nago zarama, biltontzi berdean, gaueko bederatzietatik aurrera baino ezin dela utzi gogorazteko karteltxoak itsasten atez ate ibiltzeaz; eta gainera, auzokide batzuek ez naute begi onez ikusten; bai, bai, hala da!, agian uste dute salatzeke asmoa daukadala. Bada, begira, horixe pentsatzen hasi naiz..."

**Maitane López.**  
28 urteko langilea.

*Bizikletaz mugitzen da hirian zehar.*

"...antza denez, batzuek asfaltoaren euren delak uste dute. Ez dut, ez, autoen zirkulazioa iraultzeko asmorik, eta miraririk ere ez dut eskatzen. Eta ez dut ez gogorik, ez astirik, ezin talde bizikletazale ekologistatan sartzeko. Garraiobide hori erabiltzen dugunoi gutxienezko eskubide batzuk onestea besterik ez dut eskatzen. Hara Europa eta XXI. mendea! Ez letorkiguke txarto Italia edo Holandako hiri askotara joan eta zer edo zer ikastea. Eta orain, ez esan espaziorik ez dagoenik edo gure herriak horretarako azpiegiturarik ez duenik... Nazkatuta nago neure burua estresak jotako txofer askoren bozina, oihu eta irainetatik defendatu behar izateaz".

**Alberto Gorostiza.**  
70 urteko jubilatua.

*Bere kaletik azokara 25 minutu ditu oinez, eta etxera itzultzeko oso autobus gutxi dabil.*

"...noski, jubilatua naizenez... erosketa egiten egun osoa eman ahal dudala pentsatuko duzue. Eta gainera, horrela, paseoa egiten dudala, oso osasungarria da eta. Baina, ondo deritzazue egunero patata, sagar edota limoi zamarekin ia bi kilometro ibili behar izateari...? Bai, jakina!, hurbilagoko tokiren batean erosi ahal dut, egunero azokara joan behar izan gabe... Baina hori neure arazoa da. Erdialdean autobusak eta metroa daude, eta laster, globoak ere izango dituzte. Baina gainerako guztiez ahaztu egiten dira beti; a ze kasualitatea! Hirian luxuzko dendak baino gauza gehiago jarri behar dira; nik neuk, supermerkatu handiak ezertarako ere ez ditut nahi, salgai guztiak idor-idor aurkitzen dituzu eta".





## Pequeñ@s pero ciudadan@s

*Teresa Llobet es educadora y presidenta de la Asociación Cultural de Granollers, desde la que lleva cinco años realizando campañas cívicas de concienciación y sensibilización, relacionando los parámetros ciudad e infancia. Estas experiencias pueden ser una buena pista para ponerlas en práctica en nuestro pueblo, a través de nuestra asociación.*



Teresa Llobet

Asociación Cultural de Granollers.

25  
HIRIA

ihitza

**EL PROYECTO** *Petits però ciutadans* nació de la necesidad de reflexionar sobre la ciudad y sus ciudadan@s más pequeñ@s.

Queríamos pensar y hablar acerca de la ciudad que educa constantemente: cada vez que se construye una calle, una plaza... se defiende un modelo de ciudad que transmite unos valores; del mismo modo que cada vez que se programan actos culturales, se está, también, transmitiendo una tipología social y cultural determinada. Detrás de todas las acciones que se deciden en las ciudades, de cada una de las actitudes, hay siempre una filosofía, un modo de actuar que configura lo que es una ciudad. Nuestro grupo se pregunta: ¿qué queremos que sea nuestra ciudad?, ¿qué se espera de ella?, ¿a quién se tiene en cuenta?, ¿para quién es?

*Petits però ciutadans* piensa que las ciudades están creadas por y para un colectivo de personas adultas que no tienen dificultades físicas, que transitan por la ciudad sin reflexionar qué es lo que la ciudadanía necesita. Queremos que la ciudad sea también para l@s niñ@s; que tengan espacios propios que favorezcan el juego, las relaciones, etc. Queremos que desaparezcan los carteles de *Prohibido jugar a la pelota*, que tengan una programación cultural adecuada, que puedan opinar y participar, que su voz se incorpore a la construcción colectiva de la ciudad, etc.

A lo largo de cinco años de trabajo, el grupo ha organizado jornadas de reflexión —siempre sobre el entorno de la ciudad y la infancia— tocando muchos aspectos: la cultura, el urbanismo, los valores...

Se han intensificado las relaciones con la administración local, así como con otras asociaciones ciudadanas.

Hemos hablado mucho de coches, entendiendo que, en cierto modo, son los que han invadido los espacios que antes se destinaban al juego y al paseo.

También representan un factor de inseguridad que repercute en la auto-

nomía de los niños y niñas. Muchas familias tienen miedo a dejar ir solos a sus hijos/as por la calle: el tráfico de la ciudad es un buen argumento para ello. Pero esto hace que cada vez más los niños y niñas pierdan parcelas de independencia, de elegir el camino, de hablar con los amigos y amigas durante el trayecto... cuestiones absolutamente cotidianas no hace muchos años y que ahora se van perdiendo.

Las sucesivas campañas de *A l'escola hi vaig a peu* (A la escuela voy a pie) pretendían animar a las familias a aparcar el coche en casa con el doble objetivo de intentar evitar los colapsos que se originan en las escuelas a las horas de entrada y de salida de los escolares (con el consiguiente peligro que esto genera) y hacer del trayecto a la escuela un momento agradable, una manera de conocer los cambios que se originan en la ciudad, de dialogar con amigos y amigas o con la familia.

Las familias tienen la responsabilidad de contribuir a recuperar espacios y derechos que los y las más jóvenes han ido perdiendo en las ciudades. Por un lado, las barreras urbanísticas, que para los niños/as representan muchas construcciones; por otro, sus apretadas agendas llenas de actividades, están contribuyendo a que pierdan oportunidades para decidir con quién se relacionan y dónde.

Otro proyecto, que desde un principio el grupo propuso, y que actualmente está liderando el Ayuntamiento de Granollers es la creación del *Consejo de los Niños*. En este consejo los representantes infantiles de Granollers podrán expresar sus opiniones sobre lo que acontece en la ciudad y sobre lo que les afecta; también podrán manifestar sus necesidades y diferentes puntos de vista. Con el *Consejo de los Niños* se pretende dar voz a nuestros ciudadanos/as más pequeños/as e incorporarlos a la construcción del proyecto de ciudad.

La ciudad del futuro no tiene que ser únicamente la ciudad de la economía y de los avances tecnológicos, sino que tiene que ser el espacio donde ciudadanos y ciudadanas nos encontremos y nos identifiquemos, nos impliquemos y nos sintamos partícipes en nuestra sociedad, en nuestro entorno, reconocidos por nuestros vecinos, por los niños y niñas...

Pensar en las personas es garantía de un futuro donde primen valores de convivencia, de solidaridad y de respeto por el medio.



# La ciudad de l@s niñ@s


## Entrevista a Francesco Tonucci

**FRANCESCO TONUCCI** es investigador del CNR (Centro Italiano de Documentación e Investigación sobre Educación Ambiental) y coordinador del programa *La città dei bambini*. El proyecto *La ciudad de los niños* constituye todo un ejemplo de intervención social y ambiental que se llevó a la práctica en Fano (Italia) y posteriormente se ha trasladado a otras partes del mundo.

**IHITZA:** ¿Cómo surge la propuesta de *La ciudad de los niños* y en qué consiste? ¿Se trata de una ciudad por y para la infancia o, por el contrario, ésta sólo es un medio o un indicador?

**TONUCCI:** El proyecto *La città dei bambini* nace de las siguientes consideraciones: la degradación de la ciudad tiene su origen, principalmente, en la elección de las necesidades por los habitantes más fuertes (personas adultas, trabajadores, etc.), como parámetro de las grandes intervenciones urbanas.

El malestar que produce la degradación es padecido por todos y todas, pero, principalmente, por los ciudadanos/as más débiles y pequeños/as. Estos son capaces de interpretar sus propias necesidades y contribuir a la transformación de la ciudad; las personas adultas exigen cambios, pero, en realidad no quieren que se realicen porque para ellas supondría la pérdida de muchos privilegios. Si se quiere una transformación real y coherente, hay que modificar los parámetros, y admitir a los y las niñas como baremos en las elecciones y en las valoraciones de la ciudad.



**Francesco Tonucci**  
Doctor en Pedagogía

**¿Cómo se pone en marcha este proyecto? ¿Con qué agentes sociales se colabora?**

Generalmente, el proyecto se presenta a los gestores de la ciudad y, en particular, al alcalde o alcaldesa: éste y su equipo de gobierno son los que deben asumirlo. El proyecto les cuestiona cambiar el parámetro de medida y de desarrollo de la ciudad, pasando del ciudadano fuerte al niño. Esta elección afecta transversalmente a la política de gobierno de la ciudad y a todos sus sectores. Por otra parte, el proyecto también puede ser asumido por grupos ciudadanos o por estructuras educativas; en ese caso se deberá contactar siempre con los gestores, si se quiere conseguir la transformación real de la ciudad.

Se propone, además, abrir un taller en la ciudad que represente al grupo operativo, el motor del proyecto y el lugar de encuentro de las personas implicadas: personas adultas y niños/as. Según el proyecto, se debe trabajar en dos direcciones: por un lado, dando la palabra a la infancia, invitándole a participar con un papel protagonista en la transformación de la ciudad; por otro lado, concienciando a las personas adultas sobre ese papel principal de los niños/as, creando nuevas sensibilidades y competencias para que en el futuro sea posible tener en cuenta las exigencias infantiles en beneficio de todos y todas.

Normalmente, la primera toma de contacto con el proyecto se hace con la lectura del libro *La città dei bambini*; más tarde se profundiza con una serie de actividades que organiza el grupo de investigación internacional del Instituto de Psicología del CNR de Roma *La città dei bambini* (coordinado por mí): encuentros sobre la ciudad, seminarios en Roma, estancias de formación, un boletín informativo, material didáctico, etc.

**¿En qué tipo de municipios se ha llevado a cabo la experiencia? y, ¿cuáles son los mayores logros conseguidos hasta ahora?**

En los diez años de vida del proyecto, se han sumado a él ciudades de distintas dimensiones y de diferentes polí-



ticas (países donde el libro ha sido traducido y que tienen una relación directa conmigo). Obviamente, es más fácil contactar con ciudades medianas o pequeñas en las que los conflictos son de menor entidad; sin embargo, hemos tenido experiencias muy significativas en grandes ciudades argentinas, como Buenos Aires y Rosario. En mi opinión son dos los elementos decisivos: uno técnico y otro político. Las grandes ciudades están compuestas de barrios —pequeñas ciudades— donde se desarrolla casi completamente la vida de los habitantes más jóvenes; si se considera el barrio como unidad básica y módulo operativo, la intervención es posible en todas las ciudades. El otro nivel es el grado de implicación del alcalde/sa (el alcalde de Rosario se enamoró del proyecto, lo hizo suyo y lo convirtió en el alma de su política de gobierno).

**¿Cuáles son los principales problemas que ofrecen hoy en día las ciudades y que las hacen tan poco habitables, tanto para los niños y niñas como para el resto de las personas?**

**¿Qué modelo deberíamos seguir? ¿Qué deberíamos cambiar?**

Pienso que las mayores limitaciones que sufre la infancia están relacionadas con los problemas ambientales más graves de la ciudad, por eso podemos considerar a los niños y niñas como un indicador ambiental sensible y significativo. En la ciudad de hoy, el niño no puede ser niño, no puede ejercitar uno de sus derechos más importantes: el derecho a jugar (art. 31 de la Convención Internacional de Nueva York sobre los derechos de la infancia y de la adolescencia, de 1989). Para jugar debería poder salir solo de casa, encontrar con sus amigos y amigas lugares adecuados de juego sin el control de las personas adultas. Esto, que hasta hace pocos años era habitual, ahora parece imposible. La ciudad tiene que volver a ser un lugar público para todos y todas. Las condiciones principales, a mi entender, son las siguientes:

- a) Revisar la relación entre automóvil y peatón, con una política que favorezca y defienda la movilidad a pie o en bicicleta: los vehículos deberían poder moverse libremente, pero respetando la prioridad peatonal; las vías peatonales deberían garantizar autonomía y seguridad a los ciudadanos más débiles (ancianos, discapacitados y niños).
- b) Desarrollar una política a favor de los espacios públicos, para que las calles, las plazas, los jardines, etc., sean realmente de todos y todas. Espacios compartidos por distintas categorías sociales y por diferentes generaciones.
- c) Lograr la seguridad ambiental, pero sin aumentar la defensa individual (el modelo casa-fortaleza) ni la social (policía y control interno), sino a través de una mayor participación social y un mayor cuidado de la estética de la ciudad.

**¿Cuál cree que es el reto más importante de la educación ambiental en un futuro inmediato?, ¿y sus mayores problemas?**

La auténtica educación ambiental, especialmente en los primeros y más importantes niveles escolares, no consiste en el estudio de la capa de ozono o del efecto invernadero, sino en el asentamiento de las bases hacia una relación de conocimiento, de pertenencia y de responsabilidad con el pequeño ambiente en el cual vive el niño. Por eso, proyectos cuyo objetivo sea la participación o la autonomía —ir al colegio con amigos/as y sin la compañía de personas mayores— se convierten en una experiencia preciosa para la construcción de una nueva ciudadanía participativa y preocupada.

**¿Qué les diría a todas aquellas personas que quieren transmitir un mensaje de carácter ambiental en el medio urbano, para animarles a llevarlo a cabo?**

Las propuestas ambientales son similares a aquellas que se proponen en el proyecto *La città dei bambini*; sin embargo, creo que pueden ser de difícil comprensión para el gran público, porque los conceptos de *ambiente*, *sostenibilidad*, *equilibrio*, etc. son complejos. Nosotros buscamos obtener las mismas cosas diciendo que son indispensables para un correcto desarrollo de los miembros más jóvenes de nuestra familia, del alumnado, de los ciudadanos más pequeños... No sabemos si es una motivación suficiente, pero reconocemos que es una de las más potentes de las que disponemos. Por tanto, pidamos a todos que seamos compañeros de viaje.

**¿Una última reflexión final?**

Una sencilla reflexión: cuando elijamos un alcalde o alcaldesa, no nos contentemos sólo con que sea de nuestro partido; pidámosle también hacerse cargo de las necesidades de toda la ciudadanía, también de la que no vota; porque sólo así estaremos seguros de que podrá garantizarnos el futuro de la ciudad que ponemos en sus manos.

#### Bibliografía

- ◆ TONUCCI, F. **La ciudad de los niños**. Fundación Germán Sánchez Ruipérez. Madrid, 1987.

## Jokoak

# Yo quiero y cuido mi ciudad

EDUCA. 2-4 jokalaria, 5 eta 7 urte bitartekoentzat.

HEZKUNTZA-JOKO honen helburua hirian eta horren inguruan sortzen diren ingurumen arazoak konpontzea da. Jokoak lau taula ditu (kolore banakoak eta toki banatan kokatuak: etxean, eskolan, parkean eta kalean), baina 24na kartako bi multzo ere (arazoak erakusten dituzten irudiak eta horien baliokide garbi eta ekologikoak).

Jokalaria bakoitzaren taula sei aldetan banaturik dago; horietako bakoitzean arazo ekologiko bat ageri da. Adibidez, parkeari buruzko taulan, soropila narriatzen ari diren edo txikiei jolastzen uzten ez dieten gazte batzuk ageri dira; kaleari buruzkoan, mutil batek bota egiten ditu paperak lurrera; etxeari buruzkoan, prestatuturik erositako janariak jaten edo musika ozen-ozen entzuten ari dira, etab. Partaide bakoitzak arazo horietarako irtenbideak eskaintzen dituzten sei kartak eskuratu beharko ditu; adibidez: gustura lan egin ahal izateko ikasgela garbi bat, edo gela txukun batean musika entzungailuaz entzuten ari den norbait. Eszena egoki osoa lortu ahal izateko, jokalariek elkarren artean trukatatu behar dituzte kartak. Eszena txukuna osatzen duen lehenengoa izango da irabazlea.



## Puntu berdea

OIHANE PEREA PÉREZ DE MENDIO-LAK 23 urte ditu eta Gasteizkoa da.

Oihane, 11 urte zituela hasi zen Bertsolaritza Eskolan eta, 13 urteetatik 18etara, Arabako ordezkari izan zen Euskal Herriko eskola arteko txapelketetan. Azken sei urteotan finalista izan da Arabako San Prudentzioko *Estibalizko Ama Sarietan* eta hirutan lortu du bigarren saria Araban izandako txapelketetan.

Gaur egun, txapelketetan parte hartzen segitzeaz gain, bertsolaritzako eskolak ere ematen ditu.

*Hiriaren garapena kearen gustu mikatza azpiegitura onak asfaltoaren kiratsa distantziak laburtzea kotxeen heriotz dantza telefono mugikorren lorategi aberatsa*

*postaletako mendiak postariak daramatza nahiz eta zakar ikusi argitu daiteke antza lhitzak itxaropena berpiztera garamatza egunsenti bihurtzeko etengabeko arratsa*

*Enaren dantza solteak txantxangorrien opera ostadarraren usaina salbatu da atmosfera txirridularen lasterketak elbarriekin batera lantegiko tximinia horma-belarrez bete da amets egiten nengoen iratzarri naiz kolpera oraindik ere beltza da hiri handien tankera guztion laguntzarekin noizbait pasako ote da zabortezi izatetik lorategi izatera?*

Doinua: "Habanera".

## Telebistako El Escarabajo Verde aldizkaria

Ostegunero, zita bat daukazue RTVEren bigarren katean, 16:45etik 17:30era. Saiok bi atal ditu: lehenengoan gaurkotatutako duen gairen bati buruzko erreportajea labur bat ikusi ahal izango duzue, eta bigarrean, naturagune bat eta ibilbide bat eskaini ohi dira. Hainbat pertsona ospetsu ere izango duzue bertan, eguneko mintzagaia kritikoki aztertzen. Ez galdu!

Helbide elektronikoa:

[www.rtve.es/tve/b/everde/home.htm](http://www.rtve.es/tve/b/everde/home.htm)



Seix Barral Biblioteca Eduardo Mendoza

Eduardo Mendoza

Sin noticias de Gurb



Hiriko oihanean galdutako estralurtar baten egunkaria

## Sin noticias de Gurb

Eduardo Mendoza

Seix Barral.artzelona, 2000.

Pentsatu duzue inoiz zer sentituko lukeen estralurtar batek Lur planetan? Liburu dibertigarri hau irakuriz, estralurtar batek hiritarrei buruz duen ikuspuntu barregarria ezagutuko duzue.artzelona hantkaz gora dago eta estralurtarra, hiriko kaleetan paseatzean, mehatxatzen duten arriskuen zerrenda luzea idatziz joango da bere egunkarian: behin eta berriro jausarazten duten obrak eta zangak, airearen eta uraren kutsadura, auzoko oldarkorrak... Pertsonaia horrek, giza-ki baten itxurapean, hiri handietako biztanleen eguneroko aztura batzuen zentzugabekeria biziko du: beharrezko ez diren gauzen erosketa konpulsiboa, zaborren lurrin kirasdunaz giroturiko aire zabaleko terrazak (...han, hiritar ona gortu, kutsatu eta pozoitu egiten da...), zirkulazio ugariaren ondorioz auto geldia-aren barruan hainbat ordu alferrik eman beharra, etab.

Hiriko kaosaren biktimak diren estralurtar hau eta, gainera, Gurb bere laguna aurkitu ere ezin du egin. Aurkituko ote du azkenik? Lurrean gertatuko da ala ihesi irtingo da bere espazio-ontzian?



## SARETIK BUELTAKA

**Misión rescate: planeta tierra**  
<http://rolac.unep.nx/mrescate/esp/libro/mrindx-e.htm>

UNOk sustatutako programa honek Agenda 21 ezagutzeko gonbitea luzatzen die gazteei. Gaikako lau multzo ditu: *natur esparrua*, *giza esparrua* (hirien hazkundeak dakartzan arazoetan funtsatua), *gerta dadin lortzea* (gobernuen, Nazio Batuen eta beste talde sozial batzuen eginkizuna laburbiltzen duena) eta *gazteak* (gunean sartzen direnen ideiak biltzeko xedea duena).

**Urbanita 2000: ezagutu hiriak airetik**

<http://www.pntic.mec.es/mem/urbanita>

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak diseinatu du gune hau, zuek hirigile bihurtu eta Teknologia Berrien Programaren barrutik egiten zaizkizuen proposamenak ezagut ditzazuen.

Bi atal ditu: ikasleentzako eta irakasleentzako. (Komeni da irakasleren baten laguntza izatea, bertan planteatzen diren galdekizunei erantzuteko aholku eman diezazuen). Menuak hainbat sail eskaintzen du: laguntzeko edukiak (airetik argazkiak eta alderdi geografikoak barne), Jarduerak (hiri esparrua eta bertako arazoak), Urbanopedia (oso lagungarri izango zaizun hiztegia), Hiri jolasak (*Urbanitón* eta *Mediturbis*), etab.

Hiri baten gorabeheren bila

## Hiri-inguruari buruzko minigidak

**Sestao eta Portugaleteko azterlari txikientzako behaketa-koadernoak**

Henar Fraile eta Ana Guillén. Irudiak: Mikel Valverde. Unesco Etxea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1997.

Carlota Ezkerraldeko kaietan bizi den antxeta mokogorria da. Carlatak, Txomin Txinbo eta Argi mokozabal bere lagunei esker, gure Martin ezagutu du. Martinek, beti bezain azkar ustekoak, Ezkerraldeari buruzko gorabehera guztiak dakizkiela uste du:

Ezkerraldea hiri itxurako herri eta fabrika piloa besterik ez delakoan. Minigida honen bidez, Martinekin batera ezagutuko dugu Nerbioi eta Ibaizabal ibaien bokaleen inguruetako herrietan mendeetan zehar gertatu den bilakaera interesgarria eta belaunaldiz belaunaldi inguru horretan egin diren ondoz ondoko eraldaketak, erreferentzia nagusiztat industri iraultza dutenak.



**Bilboko azterlari txikientzako behaketa-koadernoak**

Miguel del Reguero. Irudiak: Mikel Valverde. Unesco Etxea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1997.

Oraingo honetan, Martin esploratzaile txikiarekin Txomin Txinboa doa. Pertsonaia bi horien laguntzaz, Bilboko gertakari historiko batzuk, hiri-ekosistema eta beste hainbat kontu interesgarri ezagutzeko aukera izango duzue. Hiribilduan bizi diren animalia eta landare espezieen aztertzaile, argazkilari eta marrazkilari bihurtuko zarete eta hiriko kutsadura murrizteko irtenbideak ere proposatu ahal izango dituzue. Martin eta Txominekin bederatzi geltokiko ibilbidea eginez (plazak, zubiak, katedralak, museoak...) eta behaketa fitzez erregistratuko duzue zeuen azterlari lana.



## Haritzalde Parkeen Lagunak

**Talde ekologista**

HARITZALDE talde ekologista bat da eta Gipuzkoan dihardu ingurumen eta naturaren alde. Hainbat adin eta herri-tako kideek osatzen dute natur inguru-neaz arduratzen den talde hori.

Zortzi urte luze daramatza lanean. Elkartekideek bi ardatzen inguruan dihardute: zientzi eta gizarte arloen inguruan, hain zuzen. Lehenengoari dagokionez, natur inguruaren ikerketa eta azterketa lanak egiten dituzte, bera babesten lagundu ahal izateko. Gizarte arloan, naturaren balioak hedatzeko, bioaniztasunaren onura erakusteko eta gizarteak gai hauetara hurbil dadin lortzeko jarduerak garatzen dituzte.

Egindakoen artean aipa daitezke, adibidez, iazko zuhaitz landaketa eta hazkuntza, hegaztientzako habien eraikuntza, Urumea ibaiaren kanalizazio eta dragatzeari buruzko txostena, eta beste hainbat. Etorkizunari begira, desageratzeko arriskuan dauden animalia espezieen edo babesik gabeko naturagune batzuen aldeko jarduera praktikoak garatzen segitzeko asmoa dute. Haritzalde elkartearekin harremanetan jarri eta urtean zehar antolatzen dituen programetan parte hartu nahi baduzu, hementxe daukazu bi helbide:



129 posta kutxatila. 28080 Donostia.

Izotz Jauregia. Anoeta plaza 28-1

20014 Donostia.

900 110 111 / 943 47 26 17

Faxa: 943 47 37 89

Craj@gazteria.gipuzkoa.net



## Udalako ingurugiro eskola

Udalako Ingurugiro Eskola 1991n eratu zen Arrasaten, eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin egiten du lan, egun bat eta bost egun arteko egonaldietan. Bertan lantzen diren gaiak ditugu, besteak beste, hiria —ekosistema artifizialtzat hartuta—, ekosistema horretan batzen diren elementuen arteko erlazioen garrantzia, arazo nagusiak, eta horiek konpontzeko bideak. Hori dena *Arrasate txuri beltza* bideoaren eta *Hiriko berdeguneak* simulazio jokoaren bidez aurkezten da.

Eta hauek dira xehetasunez eta berariaz lantzen diren beste gai batzuk: hondakinak, zaborrak eta ontziak, ibaia eta artadia. Azken horietan oso ibilbide ekologiko egokiak batzen dira.

Udala auzoa, z/g.
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
943 770488
Faxa: 943 798 056



### IBER aldizkaria

#### Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia

Monográfico La ciudad: didáctica del medio urbano, 3. zk., 1995eko urtarrila.

Hiri-ingurunearen gaineko didaktikaz diharduen monografiko berezia, hiriaren inguruan garatutako gogoetak eta esperientziak agertzen dituena. Hiriaz egin daitekeen erabilera pedagogikoari buruzko informazioa lortu nahi duten irakasleentzako materiala da. Bereziki interesgarria da eskola hezitzaileaz mintzatzen den artikulua; berorretan aurkituko dugu Bartzelonan 1990ean inguru batek hiritar gazteenen bizi-kalitatea bermatzeko izan behar dituen ezaugarrien gainean argitara emandako Hiri Hezitzaileen Gutunaren testu osoa ere.





# Material didaktikoak

## Eibar ezagutzen

Eibarko Udala. Iruñea, 1994.

**UNITATE DIDAKTIKO** hau gaika sail-katuriko bederatziz multzotan antolaturik dago.

Hona hemen gaiok: komunikazio bideak, mapa eta fitxa bidez aurkeztuak; enklabe geografikoa eta bertako biztanleria (populazio piramideak ere aztertzen ditu); hirigintza, kale izendegia eta auzo zein kaleka egindako azterketa eskaintzen dituen; hondakinak... Hirian dauden komunikabide eta garraio bideak, bertako jaiak, ohi-


turak, historia eta Eibarko euskara ere aztertzen dira.

Horrez gain, udaletxearen maketa muntatzeko piezak eta planoak ere badakartza. Karpeta taxuaz argitaratu da, euskaraz, eta batez ere Lehen Hezkuntza du xede.

Unitate didaktikoa Gipuzkoako hiri hori ardatz hartuta osatu bada ere, oso erreferentzia egokia izan daiteke nork bere herria edo hiria protagonistatzat hartuta antzeko zerbait prestatzeko.



## Baliabideak Interneten



[www.urbanoptions.org](http://www.urbanoptions.org)

Irabazi asmorik gabeko elkarte horrek energia eta ingurumenari buruzko informazioa eta zerbitzuak eskaintzen ditu eta, aldi berean, hiri inguruen kalitatea hobetzearen alde dihardu. Web gunean, energi eta ingurumen ikuspuntuetatik eraginkorra den eraikuntza bat erakusten zaigu, energi kontsumoaren kostuaren berri jakiteko kalkulagailuarekin batera.

## IHITZAren beste zenbaki batzuetan...

**Kotxea, zurekin munduaren bukaera.** Alkartasuna Lizeoa. Beasain. **Larrañaga Institutua.** Oñati. 93ko negua. 112-113. orr.

**Zure hiria zaindu / Cuida tu ciudad.** Nazaret ikastetxea. Gasteiz. 93ko negua. 42-43. orr.

**Estudio del Paisaje Periurbano.** Ciudad Jardín Institutua; Los Herrán Institutua; R. Maeztu Institutua. Vitoria-Gasteiz; 95eko udaberria. 85-86. orr.

**Influencia del desarrollo industrial del polígono Aurrera en el municipio de Trapagarán.** Begoña Saíz eta Amelia Gutiérrez. Trapagaran BHI. Trapaga. 98ko uda. 147. or.

## MULTIMEDIA

### Hiriari buruzko Unitate Didaktikoa


CD-Roma, euskaraz eta gaztelaniaz, Curriculum Anitzeko Programako Lehen Ziklorako; Zientzi eta Teknologia Eremua. Eusko Jaurlaritzak. CEI-IDC. 2000ko iraila.

**CD-ROM HONEN** honetan, hiria ekosistema gisa aurkezten zaigu, bere baitan hara eta hona dabilen eta euren inguruarekin harreman konplexuak dituzten elementuekin batera.

Bertan, gaurkotasuna duten prentsa artikulak, estatistika azterketak eta grafikoak, fitxak, kartografia, komikiak eta beste gauza asko aurki ditzakegu. Adibide gisa, hiriak historian zehar izan duen okupazioari eta hazkunde-

ari buruzko espazio/denborazko azterketa aipa daiteke, edo energi kontsumoak garai bakoitzean eta kontinente bakoitzean izandako bilakaera,

Bestalde, hirian hiri ekipamenduari, landaretzari eta beste zenbait alderdiri erreparatuz egin daitezkeen ibilbide didaktikoak ere iradokitzen dira. Amaieran, garatutako jardueraren baloratzeko tresnak eskaintzen dira, bai eta ezagutzak zabaltzeko bibliografia luzea ere




## Zure etxea, zure planeta Tu casa, tu planeta



Ingurumen hezkuntza ez da soilik eskolaren ardura. Familiak ere badu horretan zerikusi handia. **Joseba Martínez Huertak** ikaskuntza eta hausnarketa modu erraz eta jostagarrian garatzeko ideiak eta proposamenak bildu ditu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak argitaratutako lan honetan.

La educación ambiental no es responsabilidad exclusiva de la escuela. La familia tiene un importante papel que jugar. **Joseba Martínez Huerta** ha reunido en esta obra, editada por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, una serie de ideas y propuestas que nos permitirán desarrollar el aprendizaje y la reflexión de una manera sencilla y divertida.



## La ciudad habitable Bizitzeko hiria

CEIDAk argitaratutako kartela eta gida, hiria hezkuntza-esparru ugariatik lantzeko ideiak eta proposamenak biltzen dituztenak.

Cartel y guía editados por el CEIDA en los que se han recogido ideas y propuestas para trabajar el tema de la ciudad desde los diversos ámbitos educativos.



[www.euskadi.net/ihitza](http://www.euskadi.net/ihitza)

IHITZA zuen iradokizunak plazaratzeko zain dago; beraren atal guztietan parte har dezakezue. Zuen lankidetzat erraztu asmotan, hemen duzue hurrengo zenbakiak izango duten edukiari buruzko informazioa:

6 zk.: Garapen jasangarria edo basakeria.  
7 zk.: Ura: bizitzaren oinarrietako bat arriskuan.  
8 zk.: Garraioa. Beharra edo luxua?

**IHITZA**

IHITZA está abierta a vuestras sugerencias en todas sus secciones.

Para facilitar vuestra colaboración, os informamos de los contenidos de los próximos números:

Nº 6: Desarrollo sostenible o barbarie  
Nº 7: El agua: soporte de vida en peligro  
Nº 8: El transporte. ¿Necesidad o lujo?

## CEIDA ingurugiro heziketa zure eskura

**BILBAO**  
Ondarroa, 2  
48004 Bilbao  
• 944 11 49 99  
• [ceida-bilbao@ej-gv.es](mailto:ceida-bilbao@ej-gv.es)

**URDAIBAI**  
Udetxea Jauregia  
48300 Gernika-Lumo  
• 946 25 71 25  
• [urdaibai@ej-gv.es](mailto:urdaibai@ej-gv.es)

**DONOSTIA**  
Basotxiki, 5  
20015 Donostia  
• 943 32 18 59  
• [ceida-donosti@ej-gv.es](mailto:ceida-donosti@ej-gv.es)

**LEGAZPI**  
Brinkola, z/g  
20220 Legazpi  
• 943 73 16 97  
• [ceida-legazpi@ej-gv.es](mailto:ceida-legazpi@ej-gv.es)

**VITORIA-GASTEIZ**  
Baiona, 56-58  
01010 Vitoria-Gasteiz  
• 945 17 90 30  
• [ceida-vitoria@ej-gv.es](mailto:ceida-vitoria@ej-gv.es)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA  
  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN